## Urriak 12-13

**ARABA**

Gasteiz (Gazteiz M.T.) ▪ Duraton, Pico Lobo (2.273 m). Guadalajara. Tel: 943-250354.
Laudio (Goikogane) ▪ Asteburu osorako Izabara. Dozola, Argarieta, Larratza, Punta Barrena. Tel: 94-6725021.

**BIZKAIA**

Arrigorriaga (Padura) ▪ Asteburu osorako Pirinioetara. Taillon, Marboreko Cascoa. Tel: 94-6711664.
Astrabudua (Atxazpe) ▪ Agüerri, Selva de Oza. Tel: 94-4671901.
Balmaseda (Balmaseda M.T.) ▪ Muela. Tel: 94-6800646.
Bilbo (Juventus) ▪ Beguz, Montori. Ahuski, Bohokortea, Ihatea, Etxekortia, Altzürükü. Tel: 94-4151990.
Bilbo (Mendizaleak) ▪ Kanpaldia Urbasan.
Elorrio (Erdella) ▪ Ibilbide mikologikoa Soriatik barrena. Tel: 94-6582179.
Galdakao (Ganguren) ▪ Asteburu osorako Pirinioetara. Taillon, Marboreko Cascoa. Tel: 94-4562326.
Gernika (Goi Zale) ▪ Ibilaldi neurtua.
Leioa (Leioa M.T.) ▪ San Gloria mendatea, Coriscao (2.224 m), Llanaves, Orpiñas, Llanaves. Tel: 689-721917.
Meatzaldea (Meatzal-Fabrik) ▪ Asteburu osorako Iratira. T
Portugalete (Ganerantz) ▪ Europako Haitzak, asteburu osorako. Caresko ibilbidea. Poncebos zubia, Cain, Posada de Valdeon. Igandean Arcediano xenda: Soto de Sajambre, Amieva, Ceneya, Canto Cabronero. Tel: 943-4615405.

**GIPUZKOA**

Andoain (Euskalduna) ▪ Santa Engrazi, Kakueta, Binbaleta (1.758 m), Belagoako aterpea. Igandean, Belagoa, Barazea, Holtzarte. Tel: 943-592232.
Azpeitia (Lagun Onak) ▪ Bardeetara eta Moncayora asteburu osorako irteera. Larunbatean Bardea Zuriak. Igandean Moncayo. Tel: 943-812025.
Bergara (Pol-Pol) ▪ Ganekogorta. Irteera 7:30etan frontoitik. Tel: 943-784851.
Eibar (Klub Deportiboa) ▪ Ordesa ingurua. Tel: 943-201904.
Elgoibar (Morkaiko) ▪ Barazar, Kruzeta zeharkaldia. Tel: 943-740297.
Tolosa (Alpino Uzturre) ▪ Amurrio, Ungino (1.105 m), Orduña. Tel: 943-652789.
Urretxu-Zumarraga (Ostadar) ▪ Urigoiti, Aizkorrigane, Supelegorreko haitzuloa, Kargaleku, Orozko elurzuloa, Gorosteta, Urigoiti.
Zarautz (Pagoeta) ▪ Izki Parke Naturala. Larunbatean Antoñana, Soila, Muela, Peña del Santo, Kanpezuko San Roman. Igandean, Okina, Kapildui, Arluzea, San Justi, San Cristobal, Apellaniz. Izen emateak hilaren 8a arte. Tel: 943-132911.

**NAFARROA**

Iruñea (Nafarroa K.E.) ▪ Mendiko bizikletarekin zeharkaldia. Lazar, Bardeak. Tel: 948-224324.
Sakana (Mendizaleak) ▪ Larunbatean Belate, Beruete.

## Urriak 19-20

**ARABA**

Gasteiz (Gazteiz M.T.) ▪ Otsondo mendatea, Lizuniaga. Tel: 943-250354.
Gasteiz (Mercedes Benz) ▪ Larunbatean Muro de Aguaseko bidezidorra. Isasa Haitza (1.472 m), Errioxa. Tel: 945-185403.
Gasteiz (Goiena) ▪ Europako Mendiak. San Glorio mendatea, Coriscao (2.234 m), Remoña Haitza (2.227 m), Fuente Dé. Tel: 945-234892.
Murgia (Atzabal) ▪ Loma Negra (646 m). Nafarroa Oinez. Tel: 945-462634.

**BIZKAIA**

Bilbo (Aldatz Gora) ▪ Biriatu, Xoldokogaina, Larrun, Atxuria, Zugarramurdi. Tel: 94-4168099.
Bilbo (Juventus) ▪ Aritxulegi, Bianditz (840 m), Izu (829 m), Unanu (651 m), Arantza. Irteera osagarria: Oja gaina (Azarrulla, Ayabarrena). Tel: 94-4151990.
Bilbo (Gailurra) ▪ Erlo, Azpeititik abiatuta. Tel: 94-4451000.
Bilbo (Bilbao Alpino) ▪ La Lastra, Arroyuelas (1.128 m), Leron (1.240 m), Vallegrull (1.126 m), La Lastra. Tel: 94-4337422.
Galdakao (Ganguren) ▪ Bardeak. Nafarroa Oinez. Tel: 94-4562326.
Gernika (Goi Zale) ▪ Zalama. Tel: 639-646723.
Portugalete (Ganerantz) ▪ Miraveche, La Verdina (1.356 m), Castillete (1.039 m), Pancorbo. Tel: 94-4615405.
Sestao (Galindo) ▪ Itzaga (1.631 m), Ardanaztik. Itzagaondoa ibarra. Tel: 94-4009294.
Sopela (Munarrikolanda) ▪ Asteburu osorako Pirinioetara. Panticosa. Tel: 696-731662.

**GIPUZKOA**

Andoain (Euskalduna) ▪ GR-1. Zazpigarren etapa. Bernedo, Angostina, San Roman, Muela (1.055 m), Korres. Tel: 943-592232.
Azkoitia (Anaitasuna) ▪ Umeen ibilaldia. Arlaban, Usoko Haitza, Landa. Tel: 676-875156.
Donostia (C.V.Camping) ▪ Irurtzun, Erga. Tel: 943-428479.
Elgoibar (Morkaiko) ▪ Umeekin Andartora. Tel: 943-740297.
Errenteria (Urdaburu) ▪ Larunbatean Bizkaiko Biraren zazpigarren etapa. Portugalete, Serantes, Punt Lucero, Zierbena, Montaño, San Juan de Somorrostro (Muskiz). Tel: 943-527879.
Hernani (Mendiriz Mendi) ▪ Errazkin, Beloki (1.271 m), Lakuntza. Irteera 8:00etan Atsegindegitik. Tel: 943-332745.
Legazpi (Izadi Zaleak) ▪ Gipuzkoako Bira. Bigarren etapa. Tel: 943-731168.
Pasaia (Antxeta K.K.E.) ▪ Holtzarte eta Kakuetako arroilak. Tel: 943-281791.
Villabona (Aizkardi) ▪ Valderejora irteera.

**NAFARROA**

Altsasu (Mendigoizaleak) ▪ Argazki rallya.
Iruñea (Anaitasuna) ▪ Nafarroa Oinez. Tel: 948-254900.
Iruñea (Lagunak) ▪ Errezu, Mugaga (1.230 m), Iturgoien. Goiz buelta. Tel: 948-181233.
Iruñea (Gaztaroa) ▪ Nafarroa Oinez. Tutera. Tel: 948-143419.

# bidaztiaren orriak




*Desnivel* aldizkariaren urriko zenbakiak Kantabriako Ramales de Victoria eskalada eskola eraman du azalera, barruko erreportai zabalari leihoa zabalduz. Beste eskola batek ere leku nabarmena du: Kataluniako Cap de Ras-ek. Elkarrizketa luzea Eduardo Martinez de Pisoni egin diote. Alpinismoaren atalean, Errusiako Kamchatka penintsulan eginiko lehen jarduerei buruzko erreportaia osatu dute.




*Grandes Espacios* aldizkariaren azken zenbakia monografikoa da: 100 jomuga udazkenerako. Jomuga horien artean asko dira Euskal Herrikoak: Arbaiun eta Lumbierko arroilak, Valderejo, Gorbeia, Pagoeta, Baztan, Olaldea, Irati... Tokian tokiko iruzkin labur batez gain, informazioa non eskuratu ere aipatzen da. Pagadiei buruzko erreportai ederra ere osatu dute eta bertan Kintoa eta Entziakoak dira aipagai.




*Gorbeia* Bilboko Juventus taldeak argitaratzen duen aldizkaritxoa da. Bertan taldearen eta taldekideen jarduerak jorratzen dituzte nagusiki. Azkenekoan, GR-74ko ibilbide bat (Ramales, La Gandara); Izize, Sasari, Saseta eta Bidankoze arteko ibilaldia eta Mont Valierreko igoera dira aipagarri.

# buzoia



# ikastaroak

## Urriaren 15etik azaroaren 26ra

Eibar (Klub Deportiboa) ▪ Mendiko medikuntza eta sorospen ikastaroa. Hainbat hitzaldi eta jardunaldi praktiko izango dira, bederatzi guztira. Euskal Mendizale Federazioko mediku eta teknikoek emango dute ikastaroa. Hitzaldiak arratsaldeko 19:30etatik 21:00etara izango dira, Eibarko Portalea Kultur Etxean. Prezioa: 15 euro. Informazioa: 943-201904.

## Urriak 19-20

Donostia (Gipuzkoako Goi Mendi Eskola) ▪ Orientazio ikastaroa. Hastapena eta hobekuntza. Ikastaroa Erniopeko Artaunsoro aterpean izango da. Prezioa: 65 euro urriaren 11a baino lehen; 75 euro ondoren. Informazioa: 943-461440.
Donostia (Mendiak eta Herriak) ▪ Harkaitz eskalada ikastaroa. Hastapen ikastaroa. Segurtasun teknikak, rapelak, bilerak... Eginon eta Etxaurin izango da ikastaroa. Tel: 948-513233.
Gasteiz (Arabako Goi Mendi Eskola) Eskalada ikastaroa. Hobekuntza. Informazioa: 945 13 35 17.

## Urriak 26-27

Donostia (Gipuzkoako Goi Mendi Eskola) ▪ GPSa erabiltzen ikasteko ikastaroa Adarra inguruan. Prezioa: 65 euro urriaren 19a baino lehen; 75 euro ondoren. Informazioa: 943-461440.

## Urriaren 21etik 24ra

Donostia (C.V.Camping) ▪ Mendiko argazkigintza ikastaroa. Iluntzeko 20:00etatik 21:30etara, ordu eta erdi egunero. Jesus Mari Guiroy taldeko bazkide eta Gipuzkoako Argazkilari Elkarteko kideak emango du ikastaroa. Prezioa: 10 euro bazkideek eta 16 bazkide ez direnek. Informazio gehiago: 943-428479.

## Urriak 28 eta 30

Donostia (C.V.Camping) ▪ Bi egun horietan Antxon Burcio Euskal Mendizale Federazioko zuzendari teknikoak mendian nola babestu azalduko du, bi hitzaldi eta tailer praktikoren bitartez. Segurtasuna, teknikak, jantziak, materiala, orientazioa, elikadura eta hidratazioa... hainbat gai jorratuko dira. Informazio gehiago: 943-428479.



Leire Agirrek ez du aurkaririk boulderrean: pasa den asteburuan Daroca hirian jokatutako proba irabazi zuen. Azpeitiarrak, hala ere, gogor lehiatu behar izan zuen Esther Cruz murtziarraren aurka. Bi final jokatu behar izan zituzten euren artean txapela nork jantziko zuen erabakitzeko. Azkenean, Leirek bi helduleku gehiago harrapatu zituen eta alde txiki horri esker bereganatu zuen lehen saria. Esther Cruz izan zen bigarren eta Berta Martin hirugarren. Mutiletan, Pedro Pons valentziarra nagusitu zen, Bruno Maciasekin lehia estua izan ondoren. Hirugarren Ramon Julian 'Ramonet' izan zen.

## Leire Agirre txapeldun Darocako boulder proban